SALBATORE MITXELENA
ikastola

**OHAR BILDUMA**
2022 / 05 / 20

## OHAR OROKORRAK

### AZOKA SOLIDARIOA - LH6

LH6ko ikasleek EKIko 2.unitatearen harira, “azoka solidarioa” egingo dute hurrengo ostiralean, maiatzaren 27an, 16:00etatik aurrera Bertsolari plazan. Bertan biltzen den dirua “HOTZ-ZARAUTZ gobernuz kanpoko erakundearentzat izango da”.

---

### IKASTOLAKO JAIA

Aurtengoan bai! Urtero bezala, **ekaineko lehenengo larunbatean**, **ekainaren 4an**, ikastolako jaia ospatuko dugu. Bazkarirako txartelen informazioa ESTEKA honetan ikus dezakezue.

---

erroharrihar!
IBILALDIA 2022 ABUSU IKASTOLA

2022ko maiatzaren 29n ospatuko da Ibilaldia eta familia zein lagunekin euskaratik eta euskaraz ospatzeko eguna izango da, ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirrikitu guztietara zabaltzeko. Ikasturte osoan aritu dira elkarlanean, jarritako helburuak betetzeko eta pandemia osteko lehen Ibilaldi handi eta normalizatua izateko asmoz.
Anima zaitez Ibilaldian parte hartzera!

---

### GALDUTAKO GILTZAK

Azken hilabetetan, idazkaritzan jaso diren giltzen argazkiak bidaltzen dizkizuegu honako ESTEKA honen bitartez. Zuetako norbaitenak baldin badira, mesedez, idazkaritzatik pasa jasotzera ekainak 10a baino lehen. Data horretatik aurrera, giltza hauek erretiratu egingo dira.

---

## EUSKARA AURRERA - manifestua maiatzaren 21ean, 17:30 Donostian

Euskararen egoerarekin kezkatuta gaude euskaltzaleok. Kezka hori aktibazio bilakatzeko unea da hau.Euskarak aurrera egin dezan, euskaldunok aurrera egin dezagun. Egoerari parez pare begiratu behar diogu. Herri bultzada berri bat behar du. Aurrera egin behar dugu:

- Euskaldun gisa bizitzeko eskubidea eta nahia betetzeko.
- Euskara normalizatzeko.
- Hizkuntzen, hizkuntza-komunitateen eta herrien berdintasunean oinarritutako munduari gure
- ekarpena egiteko.
- Guztion hizkuntza eskubideak errespetatzeko. Justizia eta demokrazia auzia delako hau.
- Euskara herri kohesiorako zuntza izateko.
- Finean, Euskal Herri euskalduna izateko.

**Eskuorria**
**Gutuna**

---

# LH OHARRAK

## LH1
## JOLAS EZ SEXISTA, DENONTZAT PATIO BAT ERAIKITZEN, NESKA ETA MUTIL EREDUAK

Maiatzaren 23tik 27ra LH1ko ikasleek "**jolas ez sexista, denontzat patio bat eraikitzen, neska eta mutil ereduak"** gaia landuko dute Harremanak taldeko kideen eskutik. Gela bakoitzak 6 orduko saioa izango du.

---

## LH1-LH2
## HEZKIDETZA, TRATU ONAK ETA SEXUEN HEZIKETA HITZALDIA

Azken bi aste hauetan zehar zuen seme-alabek, Udalak bideratzen duen Hezkidetza eta Tratu onak sustatzeko programa dela eta  Harremanak taldearen hezitzaile eta sexologoen esku tailerrak burutu dituzte.

LH1. eta LH2. mailakoek gai ezberdinak jorratu dituzte:

- LH1ean: Jolas ez sexista, denontzat patio bateraikitzen, neska eta mutil ereduak.
- LH2an: Lanbide aukeraketa ez sexista, zaintzaren garrantzia.

Baina langintza hau  ez da soilik ikastetxearen ardura, baita familiakoa ere, beraz hau kontutan izanda, gai honen inguruko hitzaldira gonbidatu nahi zaitugu.

Hitzaldi honetan ondorengo gaiak jorratuko dira:

- Tailerretan landutako helburuak eta gaiak.
- Tailerretan zuen seme-alabekin egindakoaren eta ikusitakoaren itzultzea.
- Etxetik eta familiaren bidez  burutzeko hainbat giltzarri.

Gurekin izango dira Aitziber Estonba Harremanak taldeko  kideak.

Norentzat: **LH 1. eta 2. mailako ikasleen gurasoei**

Noiz: Maiatzak 26, 17:00etan

Non: Plazan

**Oharra:** Gutxieneko kopura bete ezean, ez da aurrera eramango. Aforoak direla eta izen ematea burutuko da jarraiko estekan. **Izen ematea maiatzak 24rako.**

**Izen ematea:** esteka

---

-

## LH2
## IRTEERA KRISTINA ENEA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Maila** | LH2 | Prezioa | 9,80€ |
| **Nora** | KRISTINA ENEA | Irteera ordua | Ohikoa |
| **Noiz** | Maiatzak 26 | Itzulera ordua | Ohikoa |
| **Garraioa** | autobusa | | |
| **Aipatzekoak** | • Hamaiketakoa eta bazkaria eraman behar dute.<br>• Arropa egokia | | |

*Maiatzako erreziboarekin batera kobratuko da.

-

## DBH1
## IRTEERA VISTA ALEGREKO PARKERA

| **Maila** | DBH1 | Prezioa | —------ |
|---|---|---|---|
| **Nora** | Vista Alegreko parkera | Irteera ordua | 10:20 |
| **Noiz** | Maiatzak 27 | Itzulera ordua | 14:40 |
| **Garraioa** | —--------------- | | |
| **Aipatzekoak** | • Beste ostiraletan bezala hamaiketakoa edo bazkaria eraman dezakete nahi ezkero. | | |

-

## BESTELAKO OHARRAK

### HIZTUN EKOLOGISTAREN DEKALOGOA

ZER DUTE ESATEKO ZARAUZTARREK  HIZKUNTZAREN INGURUAN?

BIDEOA IKUSI

---

### MENDI IRTEERA

Gurutxurtu aisialdi elkarteak Maiatzaren 29an egun osoko irteera antolatu du Orkatzategira. Joan nahi izanez gero, izen emateko epea maiatzaren 23tik 26ra izango da Mendizabal Kinkiladendan. Irteera egun osokoa denez, hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dira eta, horrez gain, ur asko eramatea ere gomendatzen da. Irteera goizeko 9etan izango da, Guria taberna aurrean.

---

### LITERATURIA 2022 - PIZTIA

Datorren maiatzaren 27tik 29ra Literaturia, euskal literaturari eskainitako asteburua, izango dugu Zarautzen.
Egitaraua

Larunbat goizean haurrentzako sormen jarduera bat egongo da Iñaki Martiarena "Mattin" marrazkilariaren eskutik, berak sortutako Kamishibaizalea ipuin kontaketaren inguruan.

-

## OHAR OROKORRAK/ NOTIFICACIONES GENERALES

### FERIA SOLIDARIA - LH6

El próximo viernes, 27 de mayo, a partir de las 16:00 horas en la plaza Bertsolari se celebrará una feria solidaria con motivo de la 2ª unidad de EKI. Los fondos que se recauden irán destinados a la ONG HOTZ-ZARAUTZ.

---

### FIESTA DE LA IKASTOLA

¡Este año sí! Como todos los años, **el primer sábado de junio, el día 4**, celebraremos la fiesta de la ikastola. En este ENLACE podéis encontrarmás información sobre las tarjetas para la comida.

---




El próximo 29 de mayo, se celebrará  Ibilaldia, la fiesta de las ikastolas de Bizkaia. Será una fiesta para difundir la ikastola y la cultura vasca a todos los entresijos de Euskal Herria y disfrutar tanto en familia como los/las amigos/as en Euskera. Han trabajado duro durante todo el curso para cumplir los objetivos y poder normalizar esta gran fiesta tras la pandemia. ¡Anímate y  participa!

---

-

## LLAVES PERDIDAS

Os enviamos las fotografías de las llaves que se han recibido en la secretaría en los últimos meses a través del siguiente LINK. Si hay alguno que os corresponda, por favor pasad por secretaría a recogerlos antes del 10 de junio. A partir de esa fecha, estas llaves serán retiradas

---

## EUSKARA AURRERA - Manifiesto 21 de mayo, 17:30 en Donostia

Los euskaltzales estamos preocupados por la situación del euskera. Este es el momento de que esa preocupación se convierta en una activación. Para que el euskera y los vascos avancemos, tenemos que mirar la situación de par en par.

Necesita el impulso del pueblo. Tenemos que seguir adelante:

- Cumplir con el derecho y deseo de vivir como vasco.
- Normalización del euskera.
- A nuestro mundo basado en la igualdad de lenguas, comunidades lingüísticas y pueblos.
- Para aportar. Respetar los derechos lingüísticos de todos. Porque esto es una cuestión de justicia y democracia.
- El euskera como fibra para la cohesión popular.
- En definitiva, para ser una Euskal Herria euskaldun.

**Eskuorria**
**Gutuna**

---

-

## LH OHARRAK / NOTIFICACIONES LH

### LH1

### JUEGO NO SEXISTA, CONSTRUYENDO UN PATIO PARA TODOS, MODELOS DE CHICAS Y CHICOS

Del 23 al 27 de mayo los/as alumnos/as de LH1 trabajarán el tema de la “**juego no sexista, construyendo un patio para todos, modelos de chicas y chicos”** de la mano de los miembros de Harremanak. Cada aula tendrá una sesión de 6 horas.

---

### LH1-LH2

### COEDUCACIÓN, BUENOS TRATOS Y EDUCACIÓN DE LOS SEXOS CHARLA

A lo largo de estas dos últimas semanas vuestras hijas e hijos han realizado talleres a cargo de educadores y sexólogos del grupo Harremanak, con motivo del programa de promoción de la Coeducación y el Buen Trato que dirige el Ayuntamiento. LH1 y LH2.l han tratado diferentes temas:

- LH1: Juego no sexista, construyendo un patio para todos, chicas y chicos.
- LH2: Selección profesional no sexista, importancia del cuidado.

Sin embargo, esta tarea no es solo responsabilidad del centro escolar, en gran medida es más de la familia. Por ello, y para reflexionar sobre estos temas, os invitamos a la charla.

Temas que se tratarán en dicha charla:
- Temas tratados en los diferentes cursos.
- La devolución de lo observado en las aulas durante los talleres.
- Pautas para trabajar este tipo de temas desde el ámbito familiar.

Los ponientes serán Aitziber Estonba y Eneko Sarasua.

**Dirigido a : padres, madres y tutores de 1º y 2º de primaria**

Cuándo: 26 de mayo, a las 17:00 de la tarde en la Plaza de la ikastola

Nota: Si no hay un mínimo de personas apuntadas no se llevará a cabo. Por ello, pedimos que los interesados se inscriban en el siguiente link antes del 24 de mayo.

Inscripción: [link]

---

-

LH2

EXCURSIÓN  A CRISTINA ENEA

| Maila/Curso | LH2 | Prezioa/ Precio | 9,80€ |
|---|---|---|---|
| Nora/ Destino | CRISTINA ENEA | Irteera ordua/ Hora de salida | Habitual |
| Noiz/Cuando | 27 de mayo | Itzulera ordua / Hora de regreso | Habitual |
| Garraioa/Transporte | Autobús | | |
| Aipatzekoak/ A tener en cuenta | • Deben llevar almuerzo y comida.<br>• Ropa adecuada | | |

* Se cobrará con el recibo de mayo.

-

## DBH1
## EXCURSIÓN AL PARQUE DE VISTA ALEGRE

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Maila/Curso** | DBH1 | Prezioa/ Precio | —----- |
| **Nora/ Destino** | Parque de Vista Alegre | Irteera ordua/ Hora de salida | 10:20 |
| **Noiz/Cuando** | 27 de mayo | Itzulera ordua / Hora de regreso | 14:40 |
| **Garraioa/Transporte** | —------------------- | | |
| **Aipatzekoak/ A tener en cuenta** | • Como otros viernes pueden llevar almuerzo o comida si lo desean. | | |

-

## BESTELAKO OHARRAK / OTRAS NOTIFICACIONES

### DECÁLOGO DE HABLANTE ECOLOGISTA

¿QUÉ TIENEN QUE DECIR LOS ZARAUZTARRAS SOBRE EL IDIOMA?

VER VIDEO

---

### EXCURSIÓN DE MONTE

La asociación de tiempo libre Gurutxurtu, ha organizado una excursión a Orkatzategi e proximo 29 de mayo. Para asistir, el plazo de inscripción será del 23 al 26 de mayo en la Kinkiladenda Mendizabal. Como la excursión es de todo el día, habrá que llevar un hamaiketako y comida. Además, se recomienda llevar mucha agua. La salida será a las 9 de la mañana, frente al bar Guria.

---

### LITERAURIA 2022 - PIZTIA

Del 27 al 29 de mayo Zarautz acoge Literatura, un fin de semana dedicado a la literatura vasca.
Programa

El sábado por la mañana habrá una actividad creativa infantil a cargo del dibujante Iñaki Martiarena "Mattin", en torno al cuentacuentos Kamishibaizalea creado por él mismo.

---

Besterik gabe, agur bero bat.
ZUZENDARITZA

**SALBATORE MITXELENA IKASTOLA**

Maria Etxe-txiki kalea 14,
20800 Zarautz
Tlf: 943 831 752

**zarautz@ikastola.eus**

zarauzkoikastola.eus

-